

Carmen Valois

NUPEKO IRAKASLEA

Kontsumo taldeetatik Gazara

Badira hilabete batzuk kontsumo taldeei buruzko hitzaldi batean egon nintzela. Bertan, EHNE sindikatu-kide batek azaldu zituen talde horien dinamika eta filosofia.

Geroztik, bueltaka nabil gai honekin, eta ibairra harriak botatzerakoan egiten diren segidako uhinen antzera, hala darabilzkit pentsamenduak, zabaltzen eta zabaltzen.

Honakoa bere tesia: gure inguruko nekazariak lantzeko duten lurra gero eta eskasagoa da, ondorioz garestiagoa. Bestetik, azken urteotan bertako landare mota asko galtzen joan direnez, hazi motak gero eta urriagoak dira. Hazien merkatua sektoreko enpresa erraldoiek kontrolatzen dute, eta aldi berean, saltzen dituzte horiek tratatzeko behar diren produktu fitosanitarioak. Nekazariak gero eta produkzio intentsiboagoak egiten behartuak daude, diru inbertsio handiak direla medio. Ostean, saltoki handiek erosten dute beren produkzioa. Hasiera batean prezio bat adosten dute, baina hurrengoan prezioak merkatu egin behar dituztela esaten diete, bestela produkzioa ez diete erosiko, eta horrela gero eta gehiago estutzen dituzte.

Baina ziur aski, saltoki handienetan erosten dugunean ez gara horretaz jabetzen. Ez gara ohartzen produktu merke bakoitzaren



DANI BLANCO

atzean baldintza ez duinetan egindako lana egon daitekeela, behargin bat behartua, gurea ala beste herrialdeetako izan, berdin dio. Ez gara konturatzen aipatutako kate maltzurak berarekin dakarrela suntsiketa: hitzak, hizkuntzak, ohiturak... Bitartean, gure auzo, gure herrietako dendak desagertzen eta kaleak itzaltzen joaten dira. Eta honekin batera, kultura eta mundua ikustatzeko era.

Ekonomiak mendeen hartu gaituen garaiotan, balio instrumentalak gailendu zaizkie berezko balioei; dena bilakatu nahi dute trukagarri. Hala uzten dute agerian hainbat gertakarik, non estatuen interes “estrategikoak” gizakion eta giza duintasunaren aurretik lehenesten diren. Adibidetzat Aaiunen gertatutakoa: sarraskia salatu ordez, bi hilabetera akordio komertzialak sinatu dituzte Marokorekin, inolako trabarik gabe.

Anartean, beste batzuk Gazara doaz, giza laguntza eramatera. Oraindik gizarte zibil konprometituaren barnean berezko balioek bizirik dirautelako, elkartasuna tarteko. Eta existitzen direlako imajina ditzaket Gazako gazteak harriak botatzen, ibaira, soldadurik gabeko lurralde aske batean. Denon artean baldintzak sortu ditugulako. Guk, horretan sinesten dugunok, irakurle. ■

«
Aaiunen gertatutakoa: sarraskia salatu ordez, bi hilabetera akordio komertzialak sinatu dituzte Marokorekin, inolako trabarik gabe
»

TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Deigarria da nola ari den txertatzen gure kultura eta gizartean, fisikoaren inguruan, betierekotasunaren ideia, badirudi ez

dugula aitortu nahi, jaio-eta, egunak eta urteak, gure ezaugarrietako bat direla, gurekin bat datozela. Hau diot, azkeneko boladan gero eta gehiago ari zaigulako ohiko egiten adina ezkutatzeko joera, zahartzarora, bere baitan gaixotasun bat izango balitz bezala. Duela gutxi igandeko egun-kazietan etortzen den aldizkari gehigarrietako batean, bere azalean agertzen zen Sofía Loren

Edertasuna eta adina

aktorea, eder eta lirain. Bere itxurak gehiago zeukan berrogei urteko emakume batena hirurogeita hamaseiko batena baino. Nire zalantzak ditut hori egokia den; irudi hori saltzearena, zertara datorren. Itxura, argi eduki behar dugu ez dela benetakoa –esan behar diet ARGIAko lagunei nire aldameneko argazkia gaurkotu behar dugula, urteak ez dira-eta alferrik igarotzen–, edertasuna urteen poderioz eraldatu egiten baita, baina ez da desagertzen. Edertasuna beti hor egongo da, ikasi behar duguna da begiratzen, bera aurkitzeko, kale kantoia bestaldean. ■